

LAZKAO

| # 10 | 2017 UZTAILA |



LAZKAOKO
UDALA

Maizpide, uda euskaraz

Maizpide, el verano en euskara



LAZKAOKO UDALA.
LEHEN SEHILEKOAREN MEMORIA
AYUNTAMIENTO DE LAZKAO.
MEMORIA DEL PRIMER SEMESTRE

08-19



Lazkao, euskararen lurraldea



Uztailean hasi eta irailera arte luzatuko dira aurten ere udako ikastaroak Maizpideen, eta urte guztiko joera jarraituz, udan ere jendez gainezka egongo da euskaltegia. Hamabi eguneko ikastaro trinkoak izaten dira, egunean 24 ordu euskara bihotzetik ahora eramateko bidea ematen dutenak. Herrian ere nabarmena da euskaltegiko ikasleen joan-etorria. Berezia izaten da herritarren eta ikasleen arteko harremana, eta ikasleek bereziki eskertzen dute lazkaotarrek haietako duten jarrera.

1975ean antolatu zuen Goiherriko Euskal Eskolak lehen aldiz Udal Euskal Ikastaro Trinkoa. Egun Maizpideko zuzendari den Jon Urdangarinak gogoan du uda hura: "Ni artean umea nintzen, baina gogortzen dut eskolak orain San Benito Ikastola dagoen San Prudentzio eraikinean izaten zirela. Otorduak eskolako frontoian izaten ziren, eta ikasleek herritarren etxetan hartzen zuten ostate". Urdangarinaren familia zen ikasleak hartzen zituenetako bat. Uztaileko hiru aste igarotzen zituzten orduan Lazkao.

Pixkanaka gero eta ezagunagoak egin ziren ikastaro haien, eta gaur egun Gerriko liburu denda dagoen lekuaren izena emate-

ko ilarak ere ezagutu ditu Urdangarinak. "Geroago hasi ziren beste leku batzuetan ere halako ikastaroak eskaintzen. Baino Lazkaon izugarrizko giroa egoten zen, antolatzen ziren kultur ekintzak ere asko izaten baitziren".

1982an neguan ere barnetegian eskolak ematen asi ziren, eta Antsoategi etxea erosia eta bertan hasi ziren ostate hartzen ikasleak. 1988an sortu zuten Maizpide, eta ikasleek dena bertan egiten zuten: egonaldia, otorduak eta klaseak. "Uztailean jende asko elkartzen zenez, klaseak ikastolan ematen genituen, Maizpideko ikasgelak logela bihurtzen genituen eta".

Herri bat atzean izatea

Urdangarinak argi du Goiherriko Euskal Eskolak hasi eta Maizpidek jarraitu duen bidea ez zela posible izango, neurri handi batean, behintzat, herria eta herritarra atzean egongo ez balira. "Ikasleek lau hormen artean ikasitakoak kanpora eraman behar dute, eta lazkaotarrek laguntza handia ematen diete horretan. Herriari eta herritarrei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen egiten duten guztiagatik".



Geroago hasi ziren beste leku batzuetan ere halako ikastaroak eskaintzen. Baino Lazkaon izugarrizko giroa egoten zen, antolatzen ziren kultur ekintzak asko izaten baitziren



Ikasleek lau hormen artean ikasitakoak kanpora eraman behar dute, eta lazkaotarrek laguntza handia ematen diete horretan. Egiten duten guztiagatik eskerrik eman behar dizkiegu



Lazkao, territorio del euskara

Un año más los cursos de verano de Maizpide serán de julio a septiembre, y siguiendo la tónica del resto del curso, el euskaltegi estará a rebosar de estudiantes. Los cursos tienen una duración de doce días, los cuales posibilitan llevar el euskara del corazón a la boca durante 24 horas al día. En el municipio es notable la ida y venida de los alumnos. La relación entre los lazkaotarras y los alumnos es especial, y los alumnos valoran y agradecen la actitud que muestran los ciudadanos hacia ellos.

Fue en 1975 cuando Goiherriko Euskal Eskola organizó por primera vez el Curso Intensivo de Euskara. El actual director de Maizpide, Jon Urdangarin, recuerda cómo fue aquel verano: "Yo todavía era un niño, pero recuerdo que las clases solían ser en el edificio San Prudencio. Las comidas solían ser en el frontón, y los alumnos se hospedaban en las casas de los ciudadanos". La familia de Urdangarin era una de aquellas familias. Los alumnos pasaban tres semanas en Lazkao.

Poco a poco, aquellos cursos se hicieron cada vez más conocidos; Urdangarin recuerda las filas que se formaban delante de la actual tienda Gerriko para apuntarse a los cursos. "Más tarde comenzaron a organizar cursos parecidos en más lugares. Pero el ambiente de Lazkao era especial gracias a todas las actividades culturales que se organizaban".

Más tarde, compraron la casa Antsoategi para que los alumnos se alojarán en un mismo edificio. En 1988 crearon Maizpide, donde se hospedaban, comían y recibían las clases. "En julio se juntaba mucha gente y las clases solían ser en la Ikastola, ya que las clases de Maizpide se convertían en habitaciones".

Lazkao "oso herri egokia" da Urdangarin en ustez, "kokapenagatik, herri euskalduna delako, eta ingurua ere oso aberatsa duelako". Hala, ikasleek Lazkaotik jasotzen duten bezala, herriak ikasleen-gandik ere jasotzen duela azpimarratu du euskaltegiko zuzendarriak: "Urtean zehar, eta udan, jende asko etortzen da Lazkao-ra, eta sortzen duten inpaktu ekonomikoa ere ez da txikia izango. Herria ezagunago ere egiten deute, eta horrek beste arlo batzuetan ere eragina du".

Ezin uka daiteke Lazkao euskararen territorioa dela, eta eman eta jaso egiten dela bertan.

Ludotekan euskara lantzen

Lazkao bizi diren hainbat haur atzerritarrek euskaraz komunikatzea eta ulertzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta, eta San Benito Ikastolarekin egindako koordinazio lanaren ondoren, batzuk ludotekara bideratu dira, eta beste batzuk, koxko-renak, euskarazko eskolak jasotzen dituzte gainerako umeekin erlazionatzeaz gain euskara landu dezaten.

Reforzando el euskara en la ludoteca

Teniendo en cuenta la dificultad que varios niños extranjeros tienen para comunicarse en euskara, y en coordinación con la Ikastola San Benito, algunos acuden a la ludoteca, para que además de relacionarse con el resto de niños, profundicen en sus conocimientos de euskara. Otros, los más mayores, reciben clases de euskara.

El amparo de todo el pueblo

Urdangarin tiene claro que el camino que comenzó a labrar Goiherriko Euskal Eskola y que después siguió Maizpide, no sería posible, en gran medida, si no fuera por el amparo de todos los ciudadanos. "Los alumnos tienen que trasladar a fuera todo lo que aprenden entre las cuatro paredes de clase. Y los lazkaotarras les ayudan mucho en eso. No tenemos más que agradecer a Lazkao y a los lazkaotarras por todo lo que nos ayudan".

Para Urdangarin Lazkao "es un pueblo muy adecuado por su ubicación, porque es un pueblo euskaldun y porque el entorno es muy rico en muchos aspectos". Así, en la misma medida que los alumnos reciben del pueblo, Lazkao también recibe de los alumnos. "Durante todo el curso, y ahora en verano, acude mucha gente a Lazkao, y el impacto económico que eso genera también es importante. Ayudan a que Lazkao sea conocido, y eso también tiene repercusión en otros aspectos".

No se puede negar que Lazkao es territorio del euskara, y que al igual que se da, se recibe.



Durante todo el curso, y ahora en verano, acude mucha gente a Lazkao, y el impacto económico que eso genera también es importante. Además, ayudan a que Lazkao sea conocido



JOSE MANUEL (Tolosa)


"Bosgarren uda da ia Maizpidera etortzen naizela, beti uztai-lehen lehen hamabostaldian. Tolosako euskaltegian ikasten dut euskara, baina laneko ordutegiagatik ezin izaten dut es-kola guztieta joan. Horregatik etortzen naiz Lazkaora, ikas-turtean zehar egindakoa sakontzera. Herritarrekin harrema-na izaten dugu, Maizpidek antolatzen dituen ekintzetan edo, besterik gabe, tabernara joatean garenean, eta hori izugarri estimatzen dut. Beti daude laguntzeko prest eta hori da guk behar duguna".

"Es el quinto verano que vengo a Maizpide, siempre la primera quincena de julio. Durante el curso estudio en el euskaltegi de Tolosa, pero el horario de trabajo me impide acudir a todas las clases. Por eso vengo a Lazkao, a profundizar en todo lo que no he podido durante el curso. Mediante los actos que organiza Maizpide o cuando vamos a tomar algo al bar, solemos relacionarnos con los lazkaotarras, y eso es algo que valoro mucho. Siempre están dispuestos a ayudarnos, que es lo que nosotros necesitamos".

CHEMA (Tenerife)

"Orain hiru urte hasi nintzen euskara ikasten, zerotik, eta ur-tean behin etortzen naiz Maizpidera. Bilbon familia eta lagun-nak ditut, ama bertakoa baitzen, eta soldaduska ere bertan egin nuen. Aramaioko lagun bat egin nuen bertan. Aramaiora joaten nintzenean gaztelaniaz egin behar izaten zuten, eta ez nuen gustuko. Horregatik hasi nintzen euskara ikasten. Tenerifen ez dut aukerarik ikasteko eta udako ikastaro trinko hauek izaten dira nire eskola bakarra"

"Empecé a aprender euskara hace tres años, desde cero, y vengo a Maizpide una vez al año. Mi madre era de Bilbao y tengo familia y amigos allí. Además, hice el servicio militar en Bilbao, donde conocí a un amigo de Aramaio. Cada vez que iba solían tener que hablar en castellano, y no me gusta-ba. Por eso empecé a estudiar euskara. En Tenerife no tengo opción de estudiar euskara; mis únicas clases suelen ser las de los cursos de verano".



MAITE (Logroño)


"Logroñokoa naiz baina Euskal Herrian hasi nintzen lanean, eta, horretarako, euskara behar nuen. Iazko urrian hasi nintzen Maizpiden, eta hilabete batzuetan lana eta ikasketak uztartu nituen. Oso gustura egon naiz eta udan ere euska-ra ikasten jarraitza erabaki dut, horregatik geratu naiz. Gai-nera Lazkaon oso ondo hartzen gaituzte. Asko laguntzen di-gute eta eskoletan ikasitako sakontzen dugu herritarrekin komunikatuz".

"Soy de Logroño, pero empecé a trabajar en el País Vasco, y necesitaba aprender euskara. Comencé en Maizpide en octubre del año pasado, y durante unos meses compaginé el tra-bajo con las clases. He estado muy agusto durante el curso y he decidido seguir aprendiendo durante el verano, por eso me he quedado. Además en Lazkao nos acogen muy bien. Nos ayudan mucho y comunicándonos con los lazkaotarras profundizamos lo aprendido en el euskaltegi".

JUANJO (Madrid)

"Ez dut inongo loturarik izan Euskal Herriarekin, baina gazte-tatik euskara ikasi nahi izan dut. Orduan ezin nuen, eta gero-ra liburuekin hasi nintzen pixkanaka ikasten, nire kabuz. Iaz Madrilgo Euskal Etxera joaten hasi nintzen eta irailean Maiz-pidera etorri nintzen lehen aldiz ikastaro trinko bat egitera. Orain egiten ari naizena bigarren ikastaroa da, eta oso gustu-ra nago. Lazkao, inguruak eta Euskal Herria zoragarriak dira".

"No tengo ningún vínculo con el País Vasco, pero desde jó-ven he querido aprender euskara. Entonces no podía, y hace poco empecé a aprender por mi cuenta, con libros. El año pasado comencé a ir a la Euskal Etxea de Madrid, y en se-ptiembre vine por primera vez a Maizpide para hacer un curso intensivo. Este es el segundo que hago, y estoy muy agusto. Lazkao, los alrededores y el País Vasco son maravillosos".



REBECCA (AEB-EEUU)

"Nire ama hizkuntzalaria da, eta euskara aztertzen ari da. Bere bidez ezagutu nuen hizkuntza hau, eta gustatu egin zi-tzaidan. Iaz hilabete bat egon nintzen berarekin hemen, eta aurten hamabostaldi bat egitera etorri naiz, gehiago ikasteko. Ni bizi naizen inguruan ezin da euskara ikasi. New Yorkera joan behar dut horretarako, baina unibertsitatean ikasten dut eta ez dut denborarik. Nire ezagutzak handitu nahi ni-tuen eta horregatik etorri naiz berriz Maizpidera".

"Mi madre es lingüista y está elaborando un estudio sobre el euskara. Fué ella la que me enseñó el idioma, y me gusto. El año pasado estuve un mes con ella aquí, y este año he venido una quincena, para aprender un poco más. En el entorno en el que vivo no puedo estudiar euskara. Tengo que ir hasta New York, pero estoy estudiando en la universidad y no tengo tiempo. Pero quería profundizar en mis estudios y por eso he venido a Maizpide".

BEA (Gasteiz)

"Ni jaiotzez Hungariarra naiz, baina Gasteizen bizi naiz. Hirugarren aldia da uztalean Maizpidera etortzen naizela. Aurreko aldieta hilabete osorako etorri izan naiz, baina aurten hamabostali bat egindo dut. Sei urte dira euskara ikasten hasi nintzela, eta Lazkaora nire ezagutzak sakontzera etortzen naiz. Irakaslea naiz eta euskaraz komunikatzeko trebetasuna falta zait. Gasteizen aukera gutxiago dugu euskaraz aritzeko eta hemen aldziz egun osoa euskaraz ematen dugu".

"Nací en Hungría, pero vivo en Vitoria. Es la tercera vez que vengo en julio a Maizpide. En anteriores ocasiones he estado todo el mes, pero este año me quedé una quincena. Emppecé a aprender euskara hace seis años, y vengo a Lazkao a profundizar mis conocimientos. Soy profesora y me falta soltura para comunicarme en euskara. En Vitoria tenemos menos opciones para hablar en euskara, y aquí pasamos todo el día viviendo en euskara".

JOSE ANGEL (Gasteiz)

"Irakaslea naiz eta hirugarren aldia da Maizpidera etortzen naizela. Orain zortzi urte hasi nintzen euskara ikasten, zero-tik, EGA titulua atera dut aurten eta euskaraz komunikatzeko segurtasuna hartzera etorri naiz. Lazkaon oso giro ona dago, eta oso gustura etortzen naiz. Oso herri euskalduna da eta jendeak erraztu egiten du egun osoa euskaraz aritzeko au-kera izatea"

"Soy profesor y es la tercera vez que vengo a Maizpide. Emppecé de cero a aprender euskara hace ocho años; este año he sacado el título EGA y he venido a Lazkao ha coger seguridad para comunicarme en euskara. El ambiente en Lazkao es fabuloso y vengo muy agusto. Es un pueblo muy euskaldun y la gente colabora para que hablemos en euskara durante todo el día".

ANA PAULA (Madrid)

"Donostiarra naiz, baina hogei urte baino gehiago dira Madrilen bizi naizela. Madrilen hizkuntza eskolan ikasten dut euskara, euskaraz irakurtzen dut eta etxean Euskal Telebista jartzen dut. Baina hitz egiteko aukera gutxi dut, eta alor hori lantzera etortzen naiz Maizpidera. Udako nire oporrak honetara bideratzen ditut, eta eskola oso trinkoak diren arren gustura egoten naiz. Herritarrek asko laguntzen digute".

"Soy de San Sebastián, pero vivo desde más de veinte años en Madrid. Estudio euskara en la Escuela de Idiomas, leo en euskara y en casa suelo estar viendo Euskal Telebista. Pero no tengo muchas oportunidades para hablar, y vengo a Maizpide para trabajar ese ámbito. Paso parte de mis vacaciones aquí, y aunque los cursos son muy intensivos suelo venir muy agusto. Los lazkaotarras nos ayudan mucho".

LABURRAIK

EKINTZAILEENTZARI ETA AUTO-ENPLEGUARI BURUZ JARDUNALDIA

Ekintzaileta eta auto-emplegu bultzatzeko helburuarekin, Ignacio Ruíz de Alegria adituak hainbat azalpen eman zituen udaletean ekainaren 29an egindako jardunaldian. Enpresa berri bat sortzeko bidean kontuan izan beharreko alderdiak zein diren eta zein pauso eman behar diren azaldu zuen. Jardunaldia Lazkaoko Udalak, Goiekik eta Lanbidek antolatu zuten.

JORNADA SOBRE EMPRENDIMIENTO Y AUTO-EMPLEO

Con el objetivo de impulsar el emprendimiento y el autoempleo, el experto Ignacio Ruiz de Alegria participó en la jornada celebrada en el ayuntamiento el 29 de junio. Ruiz de Alegria explicó los aspectos que hay que tener en cuenta y los pasos a seguir para poner en marcha un negocio. La jornada fue organizada por el Ayuntamiento de Lazkao, Goieki y Lanbide.



ETXEZ ETXEKO ETA KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ESLEITU DIRA

Lazkaoko Udalak esleitu ditu etxez etxeko zerbitzua eta kiroldegiko zerbitzua. Etxez etxeko zerbitzua Eulen enpresari esleitu zaio, eta kiroldegiko zerbitzua GKT Goierriko Kirol Zerbitzuak enpresari. Bi kasuetan bi urterako esleipena izango da, beste bi urte luzatzeko aukerarekin.

ADJUDICADOS LOS SERVICIOS PARA LA GESTIÓN DEL POLIDEPORTIVO Y AYUDA DOMICILIARIA

El Ayuntamiento de Lazkao ha adjudicado los servicios de ayuda domiciliaria y servicio del polideportivo. El servicio de ayuda se ha adjudicado a la empresa Eulen, y el servicio del polideportivo a GKT Goierriko Kirol Zerbitzuak. En ambos casos, será una adjudicación de dos años, con opción de prórroga de otros dos años.

PARTE HARTZE ALTUA ASIA ETA KIROLA KANPAINETAN

Lazkaoko Udalak uztailerako antolatutako asia eta kirola kanpainenetan 591 gaztxo ari dira parte hartzen. Asia zerbitzuan zazpi talde daude guztira, 2005 eta 2013 urteen artean jaiotakoak, eta guztira 202 neska-mutil dabilta. Arerian, kultur etxeen eta San Prudentzio eraikinean elkartzen dira. Uztailaren 28an amaituko da asia zerbitzua.

ALTA PARTICIPACIÓN EN LAS CAMPAÑAS DE TIEMPO LIBRE Y DEPORTE

En los servicios de tiempo libre y deporte organizados por el Ayuntamiento están participando 591 niños. En el servicio de tiempo se han organizado siete grupos, en los cuales participan 202 niños y niñas nacidos entre 2005 y 2013. Se reúnen todos los días en Areria, en la casa de cultura y en el edificio San Prudencio.

Kirol ikastaroetan, berri, 361 gaztetxo elkartzen dira egunero kirol ezberdinetan aritzeko. Igeriketa, tenisa, pelota, zumba, arku tiraketa, triatlón... egiten dituzte. Gazztetxoei zuzendutako ikastaroetan, aldiz, 28 gaztek eman dute izena. Funkya, pilatesa eta ziklo indoor ikastaroetan aritzen dira. Uztailaren 21ean amaituko dira ikastaroak.

En los cursillos de deporte están participando 361 jóvenes que acuden diariamente a natación, tenis, pelota, zumba, tiro con arco, triatlón... En los cursillos de funky, pilates y ciclo indoor organizados para los jóvenes se han apuntado un total de 28. Todos los cursillos finalizarán el 21 de julio.



SINGULAR DENDAK EGITASMOA LAZKAON

EL PROGRAMA SINGULAR DENDAK EN LAZKAO

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiaaren laguntzarekin, Singular Dendak izeneko egitasmoa jarri du martxan lurrealdean. Ekainaren 21ean Lazkaoko merkatarietkin bildu ziren egitasmoaren berri emateko, eta bertan azaldu zutenet, egitasmoaren helburua lurrealdeko dendak lehiakorragoak izan daitezen lortzea da. Ekintza herriko merkatarentzat interesgarria izan daitekeela irizten du Lazkaoko Udalak.

La Federación de Comercio de Guipúzcoa, con la colaboración de la Diputación Foral de Guipúzcoa, ha puesto en marcha en el territorio el programa Singular Dendak. El 21 de junio se reunieron con los comerciantes de Lazkao para presentarles la iniciativa, que tiene como objetivo convertir a los comercios de la provincia en más competitivos. El Ayuntamiento de Lazkao considera positiva la iniciativa para los comerciantes del municipio.



KOOPERAZIO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK ESKATU DAITEZKE

SE PUEDEN SOLICITAR LAS AYUDAS DE COOPERACIÓN

Lazkaoko gazteak garapeneko lankidetza ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun baloreak sustatzea da Lazkako Udalak ematen dituen laguntzen helburua. Laguntzak eskatzeko epea irekita dago.

El objetivo de las ayudas que otorga el Ayuntamiento de Lazkao es sensibilizar a la gente joven de Lazkao en acciones de cooperación al desarrollo y fomentar una cultura de solidaridad entre los pueblos y las culturas. El plazo para las peticiones de las ayudas está abierto.

GIDA BAIMENA EUSKARAZ ATERATZEAGATIK LANGUNTZAK

Lazkaoko Udalak 2.000 euroko aurrekontua du zehaztuta autoa edo motorra gidatzeko baimeñaren azterketa teorikoa 2017an zehar euskaraz ateratzen duten artean banatzeko. Azterketa gainditzten duten artean modu proporcionallean banatuko da.

AYUDAS POR OBTENER EL CARNET DE CONDUCIR EN EUSKARA

El Ayuntamiento de Lazkao tiene adjudicada una partida de 2.000 euros para repartir entre todos los ciudadanos que en 2017 obtengan el carnet en euskara. La ayuda se repartirá proporcionalmente entre todos los que aprueben el examen teórico.

EUSKARAZKO ESKOLETARA JOATEAGATIK DIRULAGUNTZAK

Euskarazko eskoletara joaten dirren herriarrei diruz lagunduko die Lazkaoko Udalak. Langabeei, etxeandreei, ikasleei eta jubilatuiei zuzendutako laguntza da, eta ezinbestekoa izango da, adibidez, eskoletara gutxienez %80ko asistentzia edukitza eta euskaltegi homologatu batean ikastea.

AYUDAS PARA ESTUDIAR EUSKARA

El Ayuntamiento de Lazkao ofrece ayudas económicas a los ciudadanos que están estudiando euskara. Las ayudas están dirigidas a parados, amas de casa, estudiantes y jubilados. Para obtener la ayuda será necesario tener una asistencia mínima a las clases del 80% y estudiar en un euskaltegi homologado.

LAZKAOKO UDALA

Lehen sehilekoaren memoria

2017ko lehen sei hilabeteetan Lazkaoko Udalak gauzatu dituen projektuen berri ematen da jarraian. Proiektuak hiru multzotan banatuta azaltzen dira: antolaketa, ingurua eta pertsona. Banaketa honen oinarrian pertsona dago, herritar bakoitza, eta bere inguruan egiten den antolaketa zehaztea da helburua: pertsona mugitzen den eremua, pertsona horri udaletik egiten zaion eskaintza, eta eskaintza hori egiteko udalak erabiltzen dituen erremintak hartzen dira kontuan.

Hurrengo orriean, Lazkaon 2017ko urtarriletik ekainera egin diren proiektuak zehazten dira. Aldizkari honetan azaltzen dena modu zabalgoan konsultatzeko aukera ere badago Lazkaoko Udalearen webgunean: www.lazkao.eus.

Txosten guzta:
lazkao.eus



AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

Memoria del primer semestre

En las siguientes páginas podrá encontrar toda la información sobre los proyectos que el Ayuntamiento de Lazkao ha desarrollado en el primer semestre de 2017. Los proyectos se presentan divididos en tres grupos: organización, entorno y persona. La distribución mencionada tiene como eje a la persona, a cada ciudadano, y el objetivo es detallar la gestión que el ayuntamiento lleva a cabo en torno a cada persona: el entorno en que se mueve, los servicios que el ayuntamiento ofrece a cada ciudadano y las herramientas que se utilizan para poder ofrecer esos servicios.

En las próximas páginas encontrará información sobre los proyectos elaborados en Lazkao desde enero a junio de 2017. Si desea información más detallada, puede acudir a la página web del Ayuntamiento de Lazkao: www.lazkao.eus.

Informe completo:
lazkao.eus



01 ANTOLAKETA ORGANIZACIÓN

6.998.565€

2017KO AURREKONTUA

2017rako aurrekontua 2016ko abenduaren 20an egindako osoko bilkuran onartu zen.

⇒ Errolda / Empadronamiento

Ekainaren 30eko datarekin, Lazkaoko errolda 5.640 biztanlekoa da (urtarrilaren 1eko datua 5.556 biztanlekoa zen). Urte hasieratik lehen sei hilabetetan 29 jaiotza egon dira, eta 23 heriotza. Adinaren eta sexuaren arabera, honakoa da ekainaren 30eko data kontuan hartuta Lazkaoko errolda:

A fecha de 30 de junio, el padrón municipal consta de 5.640 ciudadanos (el 1 de enero era de 5.556 personas). Desde comienzos de año y en los primeros seis meses ha habido 29 nacimientos y 23 fallecidos. Según la edad y el sexo, este es el padrón municipal de Lazkao a fecha de 30 de junio:

PRESUPUESTO 2017

El presupuesto para el 2017 se aprobó en el pleno del 20 de diciembre de 2016

| | -18 | +18 |
|----------------------|------|------|
| Gizonak Hombres | 569 | 2270 |
| Emakumeak Mujeres | 565 | 2236 |
| Guztira / Total | 1134 | 4506 |

⇒ Kreditu aldaketak / Modificación de créditos

Hainbat proiektu garatu ahal izateko, sei hilabete hauetan bi kreditu aldaketa egin dira, 1.933.000 euroko balioa izan dute-nak guztira.

Para abordar distintos proyectos, en estos primeros seis meses se ha procedido a dos modificaciones de crédito por un valor de 1.933.000 euros.

PROIEKTUA/ PROYECTO

KANTITATEA/CANTIDAD

| | |
|---|----------|
| Mikelargo urbanizazioa / Urbanización de Mikelar | 150.000€ |
| San Inazioko urbanizazioa Urbanización de San Ignacio | 150.000€ |
| San Prudentzioko urbanizazioa Urbanización San Prudencio | 340.000€ |
| Mundubiko komunak / Baños Mundubi | 70.000€ |
| Gurutzeko 1. fasea / 1ª fase Gurutze | 925.000€ |

PROIEKTUA/ PROYECTO

KANTITATEA/CANTIDAD

| | |
|---|----------|
| Areso-San Inazio zubia / Puente de Arezo-San Ignacio | 200.000€ |
| Udaltzaingoaren autoa / Coche municipal | 25.000€ |
| Futbol zelaiko lanak / Mejoras campo de fútbol | 20.000 € |
| Areriako berrikuntzak / Arreglos Areria | 3.000€ |
| Udaletxeko leihoak aldatu eta aurrealdeak margotu Sustitución de ventanas y arreglo fachadas | 50.000€ |
| Ayuntamiento | |

⇒ Diru sarrerak / Ingresos

Diru sarrerak guztira 2.402.198 euro dira. Horietatik 861.092 euro Itaundudako tributoetatik jasotzen den fondoarenak dira. Beste diru sarrera nagusienak honako hauek izan dira.

La recaudación total es de 2.402.198 euros. De este total, 861.092 euros corresponden al fondo tributario. El resto de las principales recaudaciones son las siguientes:

PROIEKTUA/ PROYECTO

KANTITATEA/CANTIDAD

| | |
|--|----------|
| Hiri hondasunak / Bienes comunales | 616.541€ |
| Ibilgailuen gaineko zerga / Impuesto municipal | 368.286€ |
| Hondakinak / Basuras | 170.990€ |

PROIEKTUA/ PROYECTO

KANTITATEA/CANTIDAD

| | |
|--|----------|
| Estolderia / Alcantarillado | 109.315€ |
| Ura / Agua | 46.436€ |
| Kirolinstalazioak / Instalaciones deportivas | 201.146€ |

⇒ Eskatutako dirulaguntzak / Subvenciones solicitadas

| | | | |
|---|--------------------------|------------------------|-----------------|
| Bizikidetza | Foru Aldundia/Diputación | Onartua / Concedida | 7.623€ |
| Ur deposituak egokitzeko / Adecuación depósitos de agua | Goimen | Ukatua / Denegada | |
| Kiro Ekipamendu Plana / Plan Equipamiento Deportivo | Foru Aldundia/Diputación | Ukatua / Denegada | |
| Kiro instalazioak berritzeko / Renovación instalaciones deportivas | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean / En trámite | |
| Igerian ikasteko laguntzak / Subvenciones aprendizaje natación | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean / En trámite | |
| Gurutzeko urbanizazioa / Urbanización Gurutze | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean / En trámite | |
| Kirola eta desgaitasuna / Deporte y discapacidad | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean /En trámite | |
| Kiroletako ohiko laguntzak / Ayudas anuales para deporte | Foru Aldundia/Diputación | Onartua / Concedida | 5.221€ |
| Landa bideak konpontzeko / Arreglo carreteras rurales | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean /En trámite | |
| Kultura jardueretarako / Actividades culturales | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean /En trámite | |
| Liburutegian irakurzaletasuna bultzatzeko Impulsar la lectura en la biblioteca | Foru Aldundia/Diputación | Tramitean /En trámite | |
| San Prudentzio lanak / obras | Foru Aldundia/Diputación | Onartua / Concedida | 158.992€ |
| GUZTIRA/TOTAL | | | 171.836€ |

⇒ Lizitazioa eta lehiaketa nagusiak / Principales licitaciones y concursos



| | | | |
|------------------------------------|--------------------|--|-----------------|
| Gurutzeko 1.fasea / 1ªfase Gurutze | 689.584,19€ | San Prudentzio | 339.287€ |
| Aresoko zubia / Puente Areso | 115.699,76€ | Kiroldegiko zerbitzua Servicios polideportivo | 373.000€ |
| San Inazio | 119.440€ | Etxez etxeko lagunza zerbitzua Servicio de ayuda domiciliaria | 117.200€ |
| Mikelar | 117.038€ | | |

⇒ Arau eta ordenantza aldaketak / Modificación de normas y ordenanzas

- Arau subsidiarioen aldaketa puntuari eman zaio hasiera:** Ibabeko lurzoru baten inguruan egondako akats bat; merkataritza enpresak ere industrialan ezartzeari; eta landa lurzoruan buruzko hainbat argibide egitea.
- Se ha dado inicio a la modificación puntual de las normas subsidiarias:** Subsanación de un error en una parcela en el ámbito de Ibabe; implantación de

empresas comerciales en ámbitos industriales y aclaración de artículos en las normas del ámbito del suelo rural.

- Terrazak eta parte hartze ordenantzak:** Bi kasuetan ez da nahi adina aurrerapen eman.
- Ordenanzas de terrazas y participación:** En ambos casos no se ha avanzado al ritmo deseado.

- Dirulaguntzei buruzko araua eta plan estratégikoa onartu dira.** Se ha aprobado la norma y el plan estratégico de subvenciones.
- Estolderiaren gainezko zerga %10 jetsi da.** El impuesto sobre el alcantarillado se ha reducido un 10%

⇒ Deialdiak / Convocatorias

- Iparra-Hegoa:** Garatze bidean dauden herrialdeetara bideratutako proiektuei zuzendutako laguntzak. Guztira **52.000** euroko partida bat onartu du udalak, eta aurkeztu diren proiektuak aztertzen ari da orain.
- Norte sur:** Ayudas destinadas a proyectos de desarrollo en el tercer mundo. En total se ha aprobado una partida de **52.000** euros y a día de hoy el ayuntamiento está estudiando los proyectos.

- Gazte kooperanteak beka:** Kooperazio proiektu bat garatu nahi duten gazte lazkaotarrei zuzenduta dago. Eskaerak egiteko epea irekita dago.
- Beca Jovenes Cooperantes:** Destinada a jóvenes lazkaotarras que desean llevar a cabo un experiencia de cooperación. El plazo de inscripción está abierto.

- Merkataritza eta ostalaritza alorren ireki diren aktibitate berriei zein berrikuntzak egin dituztenei zuzendutako laguntzak.** **10.000** euroko partida dago. Implantación de nuevas actividades comerciales y hosteleras, así como para las reformas y mejoras en las mismas. Se ha destinado una partida de **10.000€**.



④ Emandako diru laguntzak / Subvenciones otorgadas

| | | |
|--|----------------|--|
| Beneditarren fundazioa | 20.000€ | |
| Orobione | 4.764€ | Urtekoaren zati bat / Una parte de la cantidad anual |
| Ikastola | 28.500€ | Erdia / mitad |
| Mintzalaguna | 5.050€ | |
| Euskal Disko eta Liburu Azoka | 2.286€ | |
| LTX Musika Eskola | 50.000€ | |
| Goierrri Telebista | 5.539€ | Erdia / mitad |
| Goierriko Hitza | 5.539€ | Erdia / mitad |
| Lau Katu | 1.600€ | |
| Gipuzkoako Sega Txapelketa | 1.500€ | |
| Goierriko Rallysprinta | 1.300€ | |
| Skate | 550€ | |
| Caritas | 648€ | |
| Gazte Asanblada | 1.619€ | |
| San Juan Zubierreka | 570€ | |
| LTX Aste Kulturala | 4.737€ | |
| Ezinduei laguntzak / Ayudas a discapacitados | 1.092€ | |
| Herritarrei festetako hainbat ekintza antolatzearagatik A ciudadanos por las actividades de fiestas | 24.119€ | |
| Goieki | 30.141€ | Erdia / mitad |
| Eudel | 1.500€ | |
| Goimen | 4.070€ | Erdia / mitad |
| Enirio Aralar | 1.541€ | |
| Tolosako hiltegia / Matadero Tolosa | 2.795€ | |

④ Komunikazioa/ Comunicación

Webgunea:

Komunikaziorako biderik egokienak zein diren zehazteko hainbat esfortzu egin behar izan dira. Webgunea, sare sozialak eta teknologia berriak ezinbestekoak dira, baina herritar guztien gana iristeko beste bide tradizionalago batzuk ere erabili behar dira. Hala, sei hilabete hauetan hainbat berrikuntza egin dira www.lazkao.eus webgunean. Bigarren seihilabetean lehentasuneko elementua bihurtzeko lan egingo da.

Página web:

